



GIPUZKOAKO ESKUBALOI FEDERAZIOA

NO.RE.BA. GIPUZKOA

ARAUAK ETA LEHIAKETAREN OINARRIAK

2023/2024 Denboraldia

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

IZENA

DATAK

1. GIZONEZKOEN LURRALDE TXAPELKETA	2023/10/01etik
2. GIZONEZKOEN LURRALDE TXAPELKETA	2023/10/01etik
SENIOR EMAKUMEZKOAK	2023/10/01etik
JUBENIL MUTILAK	2023/09/24etik
JUBENIL NESKAK	2023/09/24etik
KADETE MUTILAK	2023/09/24etik
KDAETE NESKAK	2023/09/24etik

KATEGORIA BAKOITZEKO PARTE-HARTZAILEEN ADIN TAULA

SENIOR KATEGORIA ABSOLUTUA.....2005era arte jaiotakoak
JUBENIL KATEGORIA..... 2005 eta 2006 bitarte jaiotakoak
KADETE KATEGORIA 2007 eta 2008 bitarte jaiotakoak
INFANTIL KATEGORIA 2009 eta 2010 bitarte jaiotakoak



GIPUZKOAKO FEDERAZIOAREN LEHIAKETETAN PARTE HARTZEA

Senior kategorian (Lurraldeko 1. mailan) ezin dira lehiaketa berean klub bereko bi talde onartu.

- Horren ondorioz, klub batek bi talde baditu, beheagoko mailan (2. Lurraldekoa) jokatzeko duen taldeak ezin izango du mailaz igo, non eta bere Lurraldeko 1. Mailako taldea Euskadiko gizonzkoen Senior Txapelketara igotzen ez den edo 1.mailako taldea kategoriaz jaitsiko balitz.

UKO EGITEKO DATAK

1. GIZONEZKO LURRADEKO TXAPELKETA..... 13:00 Irailak 1

JOKATZEKO IZEN-EMATE DATAK

1. LURRADEKO TXAPELKETA 13:00 Irailak 8
2. GIZONEZKO LURRADEKO TXAPELKETA..... 13:00 Irailak 8
JUBENILAK..... 13:00 Irailak 8
KADETEAK 13:00 Irailak 8

TXAPELKETEN ZOZKETAK

1. GIZON. LURRALDEKOA + SENIOR NESKAK..... 18:00 Irailak 12
2. GIZON. LURRALDEKOA 19:00 Irailak 12
JUBENIL + KADETE MUTILAK 18:00 Irailak 13
1. GIZON. LURRALDEKOA + SENIOR NESKAK..... 19:00 Irailak 13

ARAUDI ETA SAILKAPEN-IRIZPIDEAK

Gipuzkoako Eskubaloi Federazioaren Lehiaketa Erregelamenduan (3.9) xedatutakoa beteko da, 2021eko azaroaren 11kpo Exohiko Batzar Nagusian onartua izan zelarik.

Oharra:

Edozein lehiaketetan jardunaldi guztiak bete gabe geldituz gero, azken sailkapen-irizpideari eutsiko zaio, baidin eta jardunaldien %70 jokatu bada; bestela, lehen itzuliko emaitzeko balioko dute.

UKO EGITEAK, ERRETIRATZEAK ETA EZ AGERTZEAK

Gipuzkoako Eskubaloi Federazioaren Lehiaketa Erregelamenduan (2.1) xedatutakoa beteko da, 2021eko azaroaren 11kpo Exohiko Batzar Nagusian onartua izan zelarik.



ARBITRAJE-JARDUERAREN ARAUDIA

Gipuzkoako Eskubaloi Federazioaren Lehiaketa Erregelamenduan (4. puntua) xedatutakoa beteko da, 2021eko azaroaren 11kpo Exohiko Batzar Nagusian onartua izan zelarik.

ARBITRAJEAK

Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Arbitroen Batzordeak izendatuko ditu partidak zuzenduko dituzten arbitroak.

Kronometratzailea eta ohartzailea Federaziokoak izango dira. Dagokion denboraldiko lizentzia izan beharko dute indarrean, federazio honen bidez kudeatua eta Gipuzkoako Lurralde Batzordeak izendatuko ditu.

Partidetako arbitroek NAHITAEZ igo behar dute partiden Akta Digitala **webgunera igande bakoitzeko 23: 59ak baino lehen**.

Akta batean gorabeheraren bat jasotzen bada, arbitroek, akta digitalaren bidez, eranskina gehitu ahal izango dute, edo partidaren ondoren eranskina egin, eta federaziora bidali, akta digitalaren edo posta elektronikoen bidez, jardunaldiaren hurrengo asteleheneko 12:00ak baino lehen.

Arazoren bat izan ezker eta papereko akta beteko balute, arbitro guztiek partiden emaitzak jakinaraz behar dituzte **900840020** telefono-zenbakian, web-orrian edo emailaz (eskubaloifederazioa@gmail.com), jardunaldi bakoitzeko **igandeko 23:59ak baino lehen**, emaitza webgunean zintzilika dadin.

Partida bateko arbitroek, partidaren akta garaiz eta behar bezala bidaltzen ez dutenenan edo partidaren emaitza jakinarazte ez dutenean, Kirol Diziplinako Batzordeari jakinaraziko zaio, **FGB Lehiaketei buruzko Erregelamendu Orokorraren** arabera jardun dezan.

Arbitraje-aldagelan, ahal den guztietan eta bestela alboko toki batean, zeina inola ee ez baita izango joko-pista, mahai eta aulki bat egon beharko dira partidaren akta egiteko, **Lehiaketei buruzko Erregelamendu Orokorraren 3.6** artikulua.

AKTA DIGITALA

2021-2022 denboralditik aurrera, **nahitaezkoa izango da akta** digitala egitea Federazioak antolatutako lehiaketa guztietan. Horretarako, tokiko taldeek edo antolatzaileek “tablet” edo portatil bat izan beharko dute zelaian bertan.



2023-2024 DENBORALDIKO ARBITRAJE TARIFAK

ARBITRAJE-ORDAINSARIAK	<u>ARBITRO BAT</u>	<u>BI ARBITRO</u>
1. LURRALDEKOA	45,50€	91€
2. LURRALDEKOA	45,50€	91€
SENIOR EMAKUMEZKOAK	45,50€	91€
JUBENILAK	29,60€	59,20€
KADETEAK	29,60€	59,20€

ANOTADORE-ORDAINSARIAK	<u>ANOTADORE BAT</u>	<u>BI ANOTADORE</u>
1. LURRALDEKOA	21,20€	42,40€
2. LURRALDEKOA	21,20€	42,40€
SENIOR EMAKUMEZKOAK	21,20€	42,40€
JUBENILAK	17€	34€
KADETEAK	17€	34€

Arbitraje-ordainsariak eta anotadore-hartzailearenak, eta dagozkien joan-etorriak (federazio honen web-orrian argitaratutako kilometro-taularen arabera) denboraldi bakoitzean onartutako fondo arbitralaren sistemaren bidez ordainduko dira.

FONDO ARBITRALAK (Partidako eta bi taldeek)

- Senior kategoria guztietan:
EPAILE BAKARRA – 30€
BI EPAILE - 60€

- Jubeniles eta kadete mailan:
EPAILE BAKARRA – 20€
BI EPAILE - 40€

Federazioak, abenduan, fondo arbitrala berrikusiko ditu, arbitraia guztien ordainketa estaltzeko nahikoa den egiaztatzeko; bestela, beharrezko errealitatearekin bat datorren eguneratzea egin ahal izango du.

Talde bakoitzak transferentzia egin beharko du Gipuzkoako Federazioaren kontura, **partida jokatu eta 48 orduko epean gehienez ere.**

JOKALAIEN LERROKATZEA

FGBMko eta Euskal Eskubaloi Federazioaren lehiaketen Erregulamendu Orokorretan xedatutakoa beteko da, Gipuzkoako Federazioaren Erregelamenduak eta Euskal Eskubaloi Federazioaren Diziiplina Aurbidearen Erregelamenduak aurreikusten ez duten kasuetan.



PRESTAKUNTZA ESKUBIDEAK

Euskal Eskubaloi Federazioaren Partida eta Lehiaketa Araudietan eta Euskal Federazioaren Diziiplina Araubidean xedatutakoa beteko da.

FGBMren LEHIAKETA GUZTIETARAKO OINARRIAK

1. Parte hartzen duten talde guztiak nahitaez Aktan inskribatu behar dute eta topaketa bakoitzean fisikoki entrenatzailea edo entrenatzailearen-laguntzailea eduki beharko dute, beti ere federazio honen araudian jasotzen den titulazioarekin. Ez-betetzereen bat gertatuz gero, **FGBM Lehiaketen Erregelamendu Orokorren 2.5 eta 2.10** artikulua aplikatuko dira.
2. Topaketa bat antolatzen duten talde parte-hartzaile guztiak Aktan inskribatu behar dute, eta fisikoki ZELAI-ORDEZKARI bat eduki behar dute; halakorik ezean, bertan dauden ofizial edo teknikarietatik edozeinek bete behar du eginkizun hori. Hori betetzen ez bada, **FGBM Lehiaketen Erregelamendu Orokorren 2.4 eta 2.10** artikulua aplikatuko zaizkie zigor gisa, bai taldeari, bai arbitroei.

JOKALARI ETA OFIZIALAREN LIZENTZIEN EGINBIDEA

- **LIZENTZIEN ARAUBIDEA** Euskadiko Federazioko Lizentzien Araubidean xedatuko da, 2007ko Abenduaren 17ko Batzarrean onartua izan zelarik eta ondoren **EUSKO JAURLARITZAK** balioztatua.
- Lizentzien tramitaziorako, talde guztiak, Gipuzkoako Lurralde Federazioan horretarako sortutako inprimaki espezifikoak aurkeztu beharko dute, Lizentzietako Araudietako 20. artikuluko baldintzak betez.
- Euskal Eskubaloi Federazioak emango ditu jokalarien eta ofizialen lizentziak, Lizentzien Araudiko 21. artikuluan ezarritakoa betez.
- Sinadurara zuzendutako laukitxoak interesdunak bete beharko du kasu bakoitzean, taldekideei (**Jokalariak eta ofizialak**) dagozkien sinadura guztiak agertu beharko dira.
- Ezetsi egingo da osatu gabe edo akastuna den eskaera oro, bai eta klubak une horretan aurkezten dituen altak ordainketa egiaztagiria ez badute ere.
- Gutxieneko jokalarien zerrenda (**lehiaketaren oinarrietan zehaztutakoak**) eta talde bakoitzak nahitaez izan behar dituen ofizialak behar bezala beteta dituzten inprimakiak Lurralde Federazioan sartu beharko dira, gutxienez, **LEHIAKETA BAKOITZA HASI BAINO ZAZPI EGUN LEHENAGO**; hala ere, gomendagarria litzateke aurretik jasotzea, lizentzien bidalketa tramiteak errazteko.
- Lizentzia tramitatzen hasi eta hogeita hamar egun igarotakoan, ezin izango da partida ofizialetako kide bakar bat ere lerrotatu, baldin eta partida hasi aurretik



elkargokideei lizentzia aurkezten ez badie, salbu eta ez aurkeztea justifikatutako kausengatik gertatzen bada. Justifikazio horiek organo eskudunak aztertu beharko ditu uneoro, eta kasu horretan, nahikoa izango da NANA aurkeztea, zenbakia eta partidaren akta sinatuta.

- **Gipuzkoako 2022/2023 Txapelketak itxi baino hiru aste lehenago**, taldeek ezin izango dute lizentziarik tramitatu kupo nagusian eta kupo gehigarrian kadete, jubenil eta senior kategorietan.
- Gipuzkoako lehiaketan **talde kadeteen inskripzioa** egiten duten klub guztiek, **kirol-asegurua FVBMrekin alta emateko eskaera egiten ez badute**, behar bezala betetako aldundiaren - triptikoa aurkeztu beharko dute denboraldia hasi aurretik, Aldundiaren aplikazioan zerrendatutako jokalarien datu guztiekin.
- Senior, Jubenil eta Kadete mailetakoko **FEDERAZIO SARI edo DIPUTAZIO TXAPELKETETAN**, goragoko mailarako baimenak eskatzeko eskaerak eta FGBM Lehiaketa eta Diziplina Komiaren kupo gehigarriak **taldea parte hartzen ari den lehiaketa amaitu baino hiru aste lehenago itxiko dira.**
- **GIPUZKOAKO KOPETAN** ekipoak inskribatzeko epe berri bat irekiko da. Baimenak eta lizentzia berriak finalaren aurreko jardunaldira arte izapidetu ahal izango dira, halakorik balego. Amaierarik ez badago, azken-aurreko jardunaldira arte izango da.

LERROKATZE BIDE GABEAK

Talde batek **jokalaria, teknikari edo ofizial bat aurkezten badu dagokion lizentzia tramitatu gabe, Diziplina Batzordeak Lehiaketen Erregelamendu Orokorren 3.4 artikulua aplikatuko du**, eta berrerortzea baloratuko du, honako kasu hauen arabera:

1. **Lizentzia tramitatu gabeko jokalaria inskribatzea.**
2. **Kupo gehigarriko lizentzia duen baimenik gabeko jokalaria.**
3. **Baimendutakoa baino jokalaria gehiago izatea kupo gehigarrian.**
4. **Gehiegizko jokalaria tramitatuta ditzutenean.**
5. **Kadete mailan, egun berean lerrokatutako jokalaria.**
6. **Baimendutakoa baino jokalaria gehiago (16) aktan lerrokatzea.**
7. **Lizentzia tramitatua ez duen ofiziala.**
8. **Titulaziorik gabeko lizentzia duen prestatzailea.**
9. **Titulaziorik gabeko lizentzia duen prestatzaile laguntzailea.**

Bere postuan ofizial edo teknikari baten identifikazioa okerra denean, Diziplina Batzordeak Lehiaketen Erregelamendu Orokorren 2.4 artikulua aplikatuko du, arbitroa eta kluba (taldearen arduraduna) zigortuz, eta berrerortzea baloratuko du, honako kasu hauen arabera:



- 1. Ofizialarena egiten duen entrenatzaile lizentziaduna.**
- 2. Entrenatzaile edo laguntzaile gisa ageri den lizentzia duen ofiziala.**
- 3. Ofizial edo entrenatzaile gisa agertzen den entrenatzailearen laguntzailea**

AKTAK - TXOSTENAK (160. Artikulua RPC - FVBM)

Kontuan hartu ondorengo gomendio hauek:

Egiten diren txapelketako edo lehiaketa ofizialeko partida guztien akta egin beharko dute arbitroek. Arbitroen eta talde bakoitzeko ofizial arduradunen sinadura agertu beharko du bertan nahitaez.

Partidaren akta egin aurretik eta talde bakoitzak jokalarien zerrenda aurkezten dutenean, arbitroek taldeko arduradun bakoitzari galdetu behar diote ea "taldeko ofizialek" zein kargu beteko duten partidaren zehar, eta partidaren aktan jaso beharko dute.

Arbitroei zalantzak sortzen bazaizkie jokalaria edo ofizialetako baten edo batzuen lizentziak baliozkotasuna edo indarraldia egiaztatze beharrezkoak diren baldintzak betetzen ez ote dituen, hala adieraziko dute aktan, izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionala edo pasaportearen jaso eta ondoren sinatuz.

Jokalaria edo ofizialetako baten fitxa aurkezten ez bada, aurreko izapide horiek ere bete beharko dira, interesduna edo interesdunak identifikatu ondoren. Interesdun horiek Nortasun Agiri Nazionala edo Pasaportearen aurkeztu beharko dute nahitaez, eta haren zenbakia partidaren aktan jaso beharko dute, bai eta federazioaren agiri ofizialean ere, lizentzia tramitatu dela ziurtatzen duena, baldin eta dagokion taldeak baldin badu.

Dagokion baimenik gabe lerrokatzen den jokalaria edo ofizialak parte-hartze bidegabea izango du.

Federazio honetako Diziiplina Batzordeak zehatuko du artikulua hau ez betetzearen zigorra, bere hedadura osoan, FGBM Lehiaketaren Erregelamendu Orokorren 3.4 artikulua eta halaber, FVBM Diziiplina Araubidearen Erregelamendua, kasu horietarako.

GIPUZKOAKO TXAPELKETEN ORDUTEGIAK

Beste klubaren baimenik gabe eta lehiaketa batzordearen oiniritzirik gabe, klubek esleitzen dituzten ordutegi-arauak ondorengoak dira:

- **Infantil, kadete eta jubenil kategoriek**, larunbat eta igandetan 10:00etatik 1:00etara.

- **Kadete eta jubenilak** ere, larunbat arratsaldetan 15:30etatik 20:00etara.

- **Senior mailako kategoria guztietan**, larunbatetan 15:30etatik 20:00etara eta igandetan 10:00etatik 13:00etara.



Ordutegi horietan edozein aldaketa egiteko Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Lehiaketa eta Diziplina Batzordeak onartu beharko du.

Ezarritako ordutegien aldaketa guztiak, bi taldeen arteko akordioaren bidez, bide telematikoz egin behar dira, gieskubaloia plataformaren bidez, klubaren izena eta erabiltzailearekin sartuz.

Alde bakarreko eskaeren kasuan, posta elektronikoz bidali beharko zaizkio Lehiaketa eta Diziplina batzordeari.

Talde bisitaria 50km baino gutxiagora badago (kiroldegitik kiroldegira) 30 minutu aurreratu ahal izango da partidaren hasiera, eta infantil kategoriaren partiden kasuan distantzia 10km-koa izan beharko da. Eskaera horiek posta elektronikoz egin beharko dira, epe barruan.

Gainera, 2019ko uztailaren 4ean egindako batzarrean, **senior kategorietan, igande arratsaldetan partidak programatzea onartu zen. Beti ere, bi taldeen arteko adostasuna egonda.**

(kasu guztietan ordu horiek partida hasteko orduak dira=

AZKEN JARDUNALDIKO ORDUTEGIA

Senior kategorien azken jardunaldian, arauz, ordutegi bateratuan programatu beharko da, baldin eta erabakigarria bada mailaz igotzeko edo jaisteko aukera duten taldeen partidetan.

Ordutegi hori Lehiaketa eta Diziplina Batzordeak zehaztuko du azken jardunaldiaren aurreko astelehenean, Klubekin adostu ondoren.

EMAITZAK ZABALTZEA

Partidetako emaitzak www.afedegi.com eta www.gieskubaloia.eus orrian zintzilikatuko dira, aktak sartzen doazen heinean.

JOKALARIEN UNIFORMETASUNA

Lehiaketei buruzko **FGBM Erregelamendu Orokorrean (3.1) xedatutakoa** beteko da

JOKATZEKO PISTEN BAIMENTZEA

1. Klub federatuen zelaietan bakarrik egin ahal izango dira partida ofizialak, haien jabetzakoak edo norbaitek utziak izanik, baldin eta Gipuzkoako Lurralde Federazioak baimena ematen badu eta aldez aurretik, jokorako baldintza tekniko eta arauzkoak onartu eta egiaztatu badira.
2. Jokalekuen azalerari, baldintzei eta ezaugarriei dagokienez, bai eta kantxarako eta instalazio osagarrietarako sarbideari dagokionez ere, kontuan hartu beharko da **FGBM Lehiaketan Erregelamendu Orokorrean** zehaztutakoa.
3. Klub guztiak behartuak daude Gipuzkoako Federazioari jakinaraztea Datu Espezifikoen Orrian (**eredua www.afedegi.com orrian eskegita + Txostenak eta**



Kudeaketak + Inskripzio-orria). Horren bitartez, federazio honi jakinarazi beharko diote zein joko-pista ofizialetan egingo diren lehiaketetako partidak, eta instalazioaren izena, helbidea, herria, telefonoa eta hari buruzko gainerako datu interesgarriak. Agiri hori behar bezala beteta egon beharko da Federazio honen bulegoetan, dagokion lehiaketa hasi baino astebete lehenago.

KADETE ETA INFANTIL MAILAKO PARTIDAK

Kadeteen eta infantilen partidetan, golen arteko aldea 30 goletik gorakoa denean: kasu horietan, partida gelditu egingo da arbitroen aldetik, eta egoera horren berri emango zaie talde bakoitzeko arduradunei. Denbora amaitu arteko ekingo zaio partidari, eta jokorau guztiak aplikatuko dira, baina golen zenbaketa eraman gabe.

JOKATZEKO BALOIA

Baloiek jarraian zehazten diren neurriak eta pisua izan beharko dituzte:

- **Senior eta jubenil gizonezkoak:** 58cm-tik 60cm-rainoko zirkunferentzia eta 425gr-tik 475gr-rako pisua. (3 zenbakia)
- **Senior eta jubenil emakumezkoak eta kadete gizonezkoan:** 54cm-tik 56cm-ra eta 325gr-tik 400gr-rako pisua. (2 zenbakia)
- **Kadete emakumezkoak:** 50cm-tik 52cm-rainoko zirkunferentzia eta 315gr-ko pisu minimoa. (1 zenbakia)

BIKOIZTUTAKO LIZENTZIAK

2012ko ekainaren 22ko Ez-ohiko Batzarrean onartutako FVBM-ren Lizentzia Erregelamenduari dagokionez (5.artikulua), klub beraren barruan lizentziak bikoiztea baimenduta dago.

Pertsona berari beste lizentzia bat tramitatzeko, jarraian zerrendatzen diren baldintzak beteko dira:

- 1. Klub beraren barruan tramitatuko da, lehenengo lizentzia tramitatu den teste talde bati egokitu behar zaiolarik.**
- 2. Aukerak honako hauek izan daitezke: entrenatzaile-jokalari, entrenatzaile-ofiziala, entrenatzaile laguntzailea-jokalari eta jokalaria-ofiziala.**
- 3. Diziplina-zigorra jaso ezker eta horren ondorioz jardunaldi kopuru bat edo gehiagotan parte hartzeko aukera galduko balute, jokalariek ezin izango dute partidari parte hartu, lizentzia-mota edozein dela ere.**
- 4. Zigorra gaitasun gabe uztekoa balitz, Euskal Eskubaloi Federazioari horren berri emanez txostena bidaliko litzaioke, nazio-mailan zabal dezan.**



INSKRIPZIO-KUOTAK ETA KATEGORIAREN ARABERAKO TASAK

2023-2024 denboraldirako ondorengoak izango dira:

● Talde nazionalak, Senior Euskal Liga	130€
● 1.Lurraldeko taldeak	260€
● Emakume Senior taldea	260€
● 2. Lurraldeko taldea	216€
● Euskal ligako jubenil eta kadete taldea	54€
● Lurraldeko jubenil eta kadete taldea	54€

COMUNICACIÓN DATOS ESPECIFICOS DEL CLUB

Txapelketa hasi baino **gutxienez zazpi egun lehenago**, parte hartzen duten klub guztiek Gipuzkoako Eskubaloi Federazioari jakinarazi behar dizkiote txapelketaren datu zehatzak. Gipuzkoan lehiatzen diren talde guztiek baldintza hori betetzen ez badute, **Lehiaketa eta Diziiplina Batzordeari** jakinaraziko zaio, zigorra ezer ditzan.

Klub bakoitzak honako arlo hauetako arduradunak izendatu beharko ditu (Euskadiko Federazioaren berberak izango dira, halakorik izanez gero):

- Berdintasunerako arduraduna
- Indarkeriarik gabeko bizikidetzaren eta kirolaren arduraduna
- Adingabeei arreta eta babesa emateko protokoloaren arduraduna
- Euskara-plana garatzeko arduraduna
- Komunikazio-arduraduna

OHARRA

GIPUZKOAKO TXAPELKETETAKO Araudi, Arautegi eta Lehiaketen Oinarri hauek GEF LEHIAKETEN ARAUDI ORROKORREAN garatutakoarekin osatzen dira, bertan jasotako alderdi guztietan. Era berean, araudi hori kategoría bakoitzeko lehiaketa-araudi espezifikoekin osatzen da, eta azken horiek lehentasunezkoak dira.